

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2017 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa, zenbait zerga araudi aldatzea, balio erantsiaren gaineko zergan informazioa berehala hornitzea gehitzeko

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak egunean izateko betebeharrak Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauaren 242. artikuluan, 2006ko azaroaren 28koan, ezarritakoaren ondorio dira, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzkoa; horretan ezarrienez, subjektu pasiboek kontabilitatea egunean izan beharko dute, hain zuzen ere, Zerga Administrazioak kontrolatu eta balio erantsiaren gaineko zergaren aplikazioa posible izateko nahikoa xehetasunekin.

Beste alde batetik, 243. artikulua xedatu zuen subjektu pasiboek abiapuntuko estatu kidearen lurraldetik kanpo baina batasunaren barruan haiek edo haien kontura bidali edo garraiatutako ondasunen erregistroa izan beharko zutelako, ondasun horiek tasatzeko eragiketetan edo horietan obrak egiteko erabiltzeko, edo aldi baterako erabiltzeko, 17. artikuluko bigarren ataleko f), g) eta h) zatietan aipatu bezala.

Azkenik, aipatutako Zuzentaruako 273. artikulua ezarri zuen estatu kideek BEZaren bilketa zuzena bermatzeko eta iruzurra saihesteko beharrezkotzat jotako beste betebeharrak batzuk ere finka ditzaketela, betiere estatu kideen artean egindako eragiketen eta barne eragiketen tratamendu berdintasuneko printzipioa errespetatzen bada.

Aipatutako araudietan erregulatutako erregistro liburuak egunean izan beharrak eraldaketa sakona izan du betebeharrak lehen aldiz ezarri zenetik gaur egunera arte, bat etorritik, logikoaenez, teknologia berriak garatzearekin, enpresek baliabide elektronikoak erabiltzea areagotzearekin eta faktura elektronikoak erabiltzea pixkanaka finkatzearekin. Horrenbestez, gaur egun, erregistro liburuak egunean izateko baliabide elektroniko edo informatikoak erabiltzen ez dituzten profesional eta enpresaburuak oso gutxi dira.

Izan ere, iruzur fiskalaren aurkako borroka errazteaz gain, hobekuntza handia ekarri du kontabilitate praktikak zuzen aplikatzean eta datuen kalitatean; bidenabar, kostuak aurrezteak, eta eraginkortasun handiagoa ere eragin ditu, eta hori guztia eragile ekonomiko guztien onerako da.

Interes orokorreko arrazoi horiek guztiek justifikatzen dute xedapen hau, zeina tresnarik egokiena baita helburu horiek lortzeko.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta arau honekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Helburu horretarako ez da eskubiak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileari betebeharrak gutxiago jartzen dizkion neurririk.

Lurralde komunean, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia, 1624/1992 Errege Dekretu bidez onartutakoa, abenduaren 29koa, aldatu egin du 596/2016 Errege Dekretuak, abenduaren 2koak, besteak beste, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia aldatzen duenak; hala, aipatutako zergaren zergadun batzuei aipatutako zerga horri dagozkion liburuak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bitartez eguneratzeko betebeharrak ezarri zitzaizkien, fakturazio erregistroak elektronikoki igorritik.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoek, adostasunez eta, aipatu bezala, baliabide elektronikoaren bitartez betebeharrak formala aplikatu beharreko inguruabarrak aintzat hartuta, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera erregistro liburuak elektronikoki eguneratuta izateko

sistema finkatzea aurreikusi dute, baina ezarpen data desberdina da lurralde komunean aurreikusitakoarekin alderatuta, 596/2016 Errege Dekretuarekin bat etorritz, abenduaren 2koa, besteak beste, balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua aldatzen duenak, 2017ko uztailaren 1ean indarrean sartu zena.

Horrek eskatzen duenez, lurralde komunean informazioa berehala emateko (IBE) zerbitzu gisa deitutakoa finkatzeko data Arabako Lurralde Historikoan arauz eta berariaz finkatu behar da.

Azaldutakoa ikusita, ondorioztatzen da ekimen horrek bermatzen duela segurtasun juridikoaren printzipioa, eta koherentea dela gainerako ordenamendu juridikoarekin, Estatukoarekin, non horrekin bat datorren araudia baitago, zein Europar Batasunekoarekin.

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 29. artikuluko 3. atalean ezarri zenez, Arabako zerga arau orokorrarena, erregistro liburuak aldizka eta baliabide telematikoen bitartez erregelamenduz zein kasutan aurkeztu behar diren zehaztuko da.

Foru Dekretu honek aldatuko ditu apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretua, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartu duena; urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautu dituena; martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharra arautzen duena; otsailaren 10eko 12/2009 Foru Dekretua, erregistro liburuetan jasotako eragiketen berri eman beharra arautu eta Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartu zuen apirilaren 27ko 12/2009 Foru Dekretua aldatu zuena; eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuena.

Gainera, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuan, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duenean, informazio betebeharrak berria jaso du.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 129. artikuluan arautzen baitu. Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako araudi eraginaren txostena ikusi da. Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia aldatzea.

Ondoko aldaketak egin dira apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuan, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartu duena:

Bat. Honela geratzen da 9. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2. zenbakiko B) letrako a) letra:

“a) Faktura bidez dokumentatutako ondasun emateei aplikatuko zaie salbuespena, baina soilik fakturaren zenbateko osoa 90,15 euro baino gehiago denean, zergak barne.”

Bi. Honela idatzita geratzen da 30. artikuluko 9. idatz zatia:

“9. Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatutako subjektu pasiboek hilero aurkeztu behar dituzte zergaren aitortpen likidazioak, eta nahitaez baliabide elektronikoak erabiliz.”

Hiru. 62. artikuluari 6. idatz zatia gehitzen zaio; hona hemen testua:

“6. Aurreko idatz zatietan xedatzen dena gorabehera, artikuluko honetako lehenengo idatz zatian aipatutako erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko dira, enpresaburu edo profesionalek eta zergaren beste subjektu pasibo batzuek fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz, hilabete naturalarekin bat datorren likidazio aldia badute, araudi honetako 71.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.”

Gainera, aurreko paragrafoan aipatu ez diren enpresaburu edo profesionalek, eta zergako beste subjektu pasibo batzuek 40. artikuluko 1. idatz zatian, 47. artikuluko 2. idatz zatian, 61. artikuluko 2. idatz zatian, eta artikuluko honetako lehenengo idatz zatian aipatutako erregistro liburuak eguneratzea aukeratu ahalko dute, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez, araudi honen 68 bis artikuluan ezarritako inguruabarretan.

Aurreko laugarren atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, erregistro liburu bakarrak osatuko dira, eta horietan zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu guztietako eragiketak jasoko dira.

Fakturazio erregistroak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez entregatuko dira elektronikoki, web zerbitzu baten bitartez edo, hala badagokio, inprimaki elektronikoki baten bitartez, betiere Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen diputatuaren aginduz onartutako erregistro esparruekin bat etorritik.

Lau. 63. artikuluko 2., 3. eta 4. idatz zatiak honela geratzen dira:

“2. Onargarria izango da, hala ere, idazpenak egitea, edozein prozedura egoki erabiliz, orri solteetan. Gerora, orri horiek korrelatiboki zenbakitu eta koadernatu beharko dira, aurreko idatz zatiak aipatutako erregistro liburuak osatzeko.

Hala ere, araudi honetako 62.6 artikuluko aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, emandako fakturen erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eguneratu beharko da, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz.

3. Egindako fakturen erregistro liburuan banan-banan inskribatuko dira egin diren fakturak. Horiez gain, baita ondokoak idatzi ere: zenbakia eta, hala badagokio, seriea, noiz egin den (data), eragiketak noiz egin diren, aurrekoaren desberdina bada, hartzailearen izena eta abizenak, sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eragiketen zerga oinarria, zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluen arabera ezarritakoa, eta, hala badagokio, aplikatutako zerga tasa eta, aukeran, “BEZ barne” esapidea, zerga kuota eta eragiketa kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorritik egin den; hala bada, araudi honetako 61. artikuluko 1. idatz zatian egindako aipamenak jaso beharko dira.

Araudi honen 62.6 artikuluko aipatutako entitate eta pertsonen kasuan, honako informazio hau ere jaso beharko da:

a) Emandako faktura mota, faktura osoa edo erraztua den zehaztuz.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Foru Diputatuaren aginduz onartutako diren erregistro elektronikoko esparruek zenbait faktura zehatz identifikatzeko balio duten beste zehaztasun batzuk jasotzeko eskatu ahalko dute, esaterako hirugarrenek emandako fakturak, eta 18/2018 Foru Dekretuan, Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuena, lehenengo xedapen gehigarriak eta 16.1 artikuluko aipatutako enpresa jarduera edo jarduera profesionala garatzean erabilitako agiri eta beste dokumentu batzuen identifikazioa.

b) Araudi honen 70. artikuluko aipatutako erregistro zuzenketa bat den identifikatzea, hala badagokio.

c) Eragiketen deskribapena.

d) Faktura zuzentzaileen kasuan, hala identifikatu beharko dira, eta zuzendutako fakturaren erreferentzia jasoko dute edo, hala badagokio, zuzentzen diren xehetasunak.

e) Lehenago emandako faktura erraztuen ordezkari edo trukean ematen diren fakturen kasuan, ordeztu edo trukatu den fakturaren erreferentzia jasoko da, edo, hala badagokio, ordeztu edo trukatu diren zehaztasunak.

f) Araudi honen 51 quater eta 61 quinquies artikuluetako 2. idatz zatian egindako aipamenak, eta Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuen 18/2013 Foru Dekretuko 6. artikuluko 1. idatz zatiko j), l) eta p) letrak.

g) Emandako fakturretan erregistratutako eragiketen likidazio aldia.

h) Hala badagokio, eragiketa balio erantsiaren gaineko zergaren mende ez dagoela adieraztea.

i) Faktura eman bada Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuen 18/2013 Foru Dekretuan aurreikusitako fakturazio arloan emandako baimen bat dela bide, orduan emandako baimenaren erreferentzia jasoko da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez xedatu ahalko du aurreko datuekin batera zerga aldetik garrantzia daukaten gainerako guztiak ere adierazi beharko direla, hain zuzen ere Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, 3 – 5 bitarteko artikuluetan aipatzen dituenak.

4. Aurreko idatz zatian adierazitako fakturak banan-banan idazteko betebeharraren ordezkariak laburpen idazpenak egin ahal izango dira. Horietan ondokoak idatziko dira: faktura noiz egin den (data edo aldia), zerga oinarria, zerga tasa bakoitzari dagokiona, zerga tasa, fakturen kuota guztira (hurrenez hurren zenbakituak eta egun berean emanak) eta fakturen hasierako eta bukarako zenbakiak, eta kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorritakoak egin bada eragiketa; halakoetan, arautegi honetako 61 decies artikuluko 1. idatz zatian adierazitakoak idatzi beharko dira. Hori guztia baldin eta aldi berean ondokoak betetzen badira:

a) Emandako fakturretan hartzailea identifikatzea nahitaezkoa ez bada, Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuen 18/2013 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik.

b) Eragiketa dokumentatuen sortzapena hil berean gertatu bada.

Baliozkoa izango da, era berean, zerga tasa desberdinak ordaintzen dituzten eragiketak biltzen dituen ordainagiria segidako zenbait idazpenetan jasotzea.”

Bost. 64. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz zatiak honela geratzen dira:

“3. Onargarria izango da, hala ere, idazpenak egitea, edozein prozedura egoki erabiliz, orri solteetan. Gerora, orri horiek korrelatiboki zenbakitu eta koadernatu beharko dira, artikuluko honetan araututako erregistro liburu osatzeko.

Hala ere, araudi honen 62.6 artikuluko aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, jasotako fakturen erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez eguneratu beharko da, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz.

4. Jasotako ordainagiriaren errolda liburuan, banan-banan idatziko dira hartutako ordainagiriak eta, behar izanez gero, aduanetako agiriak eta arestian aipatutakoak. Horiez gain, ondokoak ere idatziko dira: harrera zenbakia, noiz egin den (data), eragiketak noiz egin diren (data aurrekoarekin bat ez badator eta hala jasota badago), egin behar duenaren izen-abizenak, edo sozietatearen izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga oinarria (zergaren arauaren 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztua) eta, behar denean, zerga tasa eta zerga kuota eta kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorritakoak egin bada eragiketa. Halakoetan, arautegi honetako 61 decies artikuluko 2. idatz zatian adierazitakoak idatzi beharko dira.

Artikulu honen 2. idatz zatiaren bigarren lerroaldean adierazitako fakturei dagokienez, faktura horien idaztoharrean kalkulatu eta jasoko dira beraietan jasotako emateek eragindako Europar Batasunaren barruko ondasun eskuraketei dagozkien zerga kuotak.

Era berean, fakturei edo artikulu honen 2. paragrafoaren hirugarren lerroaldean aipatzen diren kontularitzako frogagiriei dagokienez, faktura edo kontularitzako frogagiri horiek idaztean kalkulatu eta esleituko dira beraietan jasotako ondasun emate edo zerbitzu eskaintzei dagozkien zerga kuotak.

Araudi honen 62.6 artikulua aipatutako entitate eta pertsonen kasuan, honako informazio hau ere jaso beharko da:

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea, fakturan ageri direnak. Araudi honen 62.6 artikuluan jaso gabekoek erabilitako harrera zenbakia ordeztuko du.

b) Araudi honen 70. artikulua aipatutako erregistro zuzenketa bat den identifikatzea, hala badagokio.

c) Eragiketen deskribapena.

d) Araudi honen 61 quinquies artikuluko 2. idatz zatian egindako aipamenak, eta Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuen 18/2013 Foru Dekretuko 6. artikuluko 1. idatz zatiko l) eta p) letra artekoetan egindakoak, eta ondasunen batasunaz gaindiko eskuratzea bada.

e) Idazpena egin den likidazio aldiari dagokion zerga kuota kengarria. Kengarriaren erregulazioa, hala badagokio, Zergaren Arauaren 105. Lau, 109, 110, 111 eta 112 artikuluetan xedutakoarekin bat etorri egingo da, dagokion gisan; horrek ez du eragingo erregistratutako kuota kengarria aldatu beharra.

f) Jasotako fakturretan erregistratutako eragiketen likidazio aldia.

Inportazio eragiketen kasuan, eragiketaren kontabilizazio data eta aduana agiriari dagokion zenbakia kontsignatuko dira.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez xedatu ahalko du aurreko datuekin batera zerga aldetik garrantzia daukaten gainerako guztiak ere adierazi beharko direla, hain zuzen ere Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, 3 – 5 bitarteko artikuluetan aipatzen dituenak.

5. Egun berean jasotzen diren faktura guztiak laburpen idazpen orokor batera bildu daitezke, datu hauek adierazita: hornitzaile berak emanik jasotako fakturen lehen eta azken zenbakiak, hartzaileak jarriak; zerga oinarriaren gutzirako zenbatekoa, zerga tasa bakoitzari dagokiona, eta zerga kuota osoa, eta kutxa irizpidearen araubide bereziarekin bat etorri egin bada eragiketa (halakoetan, arautegi honetako 61 decies artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoak idatzi beharko dira), baldin eta eragiketa guztien batura, balio erantsiaren gaineko zergarik gabe, 6.000 euro baino gehiago ez bada eta haietako bakoitzean dokumentatutako eragiketen zenbatekoa 500 euro baino gehiago ez bada, balio erantsiaren gaineko zergarik gabe.

Baliozkoa izango da, era berean, zerga tasa desberdinak ordaintzen dituzten eragiketak biltzen dituen ordainagiria segidako zenbait idazpenetan jasotzea.”

Sei. Honela idatzita geratzen da 65. artikuluko 6. idatz zatia:

“6. Idazpenak edo anotazioak edozein prozedura egokiz orri berezietan egiteak balio izango du, gero zenbakiak jarri eta ondo ordenaturik azaleztatzen badira artikuluko honetan arautzen den liburua haiekin osatzeko.

Araudi honen 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bitartez eguneratu beharko da, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz; erregistro guztiak urte natural bakoitzeko azken likidazio aldiari dagokion aurkezpen epearen barruan igorri beharko dira.”

Zazpi. 66. artikuluari 3. idatz zatia gehitzen zaio. Hona:

“3. Araudi honen 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, erregistro liburu hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez eguneratu beharko da, bertan jaso beharreko eragiketa bakoitzaren xehetasunen informazioa elektronikoki hornituz.

Zortzi. 67. artikuluko 2. zenbakia honela geratzen da:

“2. Subjektu pasiboak eskuratu edo inportatu dituen ondasunengatik, jaso dituen zerbitzuengatik edo, halakorik denean, egiten dituen autokontsumoengatik jasan beharreko zergaren zenbateko osoa eta zerga kuota kengarria.”

Bederatzi. 68. artikuluari 4. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

“4. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikagarria izango araudi honen 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, zenbatekoak eurotan adierazteko betebeharra salbu.”

Hamar. 68 bis artikulua berria gehitu da; hona testua:

“68 bis artikulua. Erregistro liburuak elektronikoki eguneratzeko aukera.

Araudi honen 62.6 artikulua aipatutako aukera eragina izango duen urte naturala hasi aurreko azaroan baliatu beharko da, kasuan kasuko zentsu aitortpena aurkeztuz. Hala ere, arribideko urte naturalean enpresa jarduera edo jarduera profesionala garatzeari ekin ahal izan diotenen erregistro liburuak eguneratzeko sistema honen alde egin ahal izango dute jarduera hasi izana azaltzeko adierazpena aurkezteko unean; aukera horrek arribideko urte naturalean izango du eragina.

Aukera hurrengo urteetarako luzatu dela ulertuko da, horri uko egiten ez bazaio.

Erregistro liburuak eguneratzeko sistema hau hautatzen dutenek gutxienez hautapena aurkeztu den urte natural osoko fakturazio erregistroak aurkeztu beharko dituzte.

Aukera horri uko egin nahi izanez gero, jakinarazi egin beharko zaio Zerga Administrazioako organo eskumendunari ondorioak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko azaroan, zentsu aitortpena aurkeztuta.

Araudi honetako 30.5 artikuluan ezarritakoa aplikatuz hileko itzulketak erregistro kanpo geratutako subjektu pasiboak, halaber, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bitartez erregistro liburuak eguneratu beharretik salbuetsita egongo dira, kanpo geratu izanari buruzko erabakia jakinarazi den likidazio aldiko lehen egunetik ondorioak izanik.

Zergaren arauko 163. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, entitateen taldearen araubide bereziaren aplikazioa bertan behera uzteak zehaztuko du une horretatik erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bitartez eguneratu beharra ere bertan behera uzten dela.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritakoa ez da aplikatuko araudi honen 71.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz hileko likidazio aldia daukaten profesional edo enpresaburuak direnean.

Hamaika. 69 bis artikulua berria gehitu da; hona testua:

“69 bis artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki igortzeko aldiak.

1. Araudi honen 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, fakturazio erregistroak epe hauetan eman beharko dira:

a) Emandako fakturei buruzko informazioa, faktura egin den unetik lau egun naturaleko epean, salbu eta hirugarren batek edo hartzaileak emandako fakturak badira, Zergaren Arauko 164. Bi artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz; kasu horretan aipatutako epea zortzi egun naturalekoa izango da. Batera zein bestera, erregistratu beharreko eragiketaren zerga karga sortzen den hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehen egin bidali behar da informazioa.

b) Jasotako fakturen informazioa, lau egun natural faktura kontabilitatean erregistratzen denetik, eta nahitaez eragiketak sartzen diren likidazioaren aldia amaitu ondoko hilaren 16a baino lehen.

Inportazio eragiketen kasuan, lau egun naturalak zenbatu beharko dira aduanek likidatutako kuota jaso zuen dokumentuaren kontabilitate erregistroa egiten den unetik, eta, nolana ere, kasuan kasuko aitortpenari dagokion aldia amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen.

c) Araudi honen 66.1 artikulua aipatutako eragiketen informazioa lau egun naturaleko epean, igorpen edo garraioaren hasierako unetik zenbatzen hasita, edo, hala badagokio, kasuan kasuko ondasunak jasotzen diren unetik.

Aurreko a), b) eta c) atalek aipatutako lau edo zortzi egun naturaleko epea zenbatze aldera, egun baliogabeak ez dira kontuan hartuko.

2. Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen informazioa aurreko ataletan ezarritako epeetan eman beharko da, eragiketa horiei aipatutako araubide berezia aplikatu behar ez balitzaie bezala; nolana ere, baliteke eragiketak erabat edo partzialki kobratu edo ordaintzerakoan bestelako informazioa eman behar izatea.

3. Araudi honen 70. artikulua aipatutako erregistro zuzenketa kasuan, horrelako zuzenketa hartzen dituzten fakturazio erregistroak aintzat hartu beharreko aitortzenari dagokion aldia bukatu eta hurrengo hileko 16. eguna baino lehen eman beharko dira."

Hamabi. Honela idatzita geratzen da 70. artikulua:

"70. artikulua. Erregistroko idazpenak zuzentzea

1. Erregistroko idazpenak egiterakoan, enpresaburuek edo profesionalek aurreko artikuluetan adierazten den akats materialen bat egin badute, zuzendu egin beharko dute. Zuzenketa hori likidaziorako epealdia bukatutakoan egin beharko dute, eta, horretarako, idazpen bat edo idazpen multzo bat egin behar da.

Aurrekoa aplikagarria izango da araudi honen 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, bertako 69 bis artikuluko 3. idatz zatian ezartzen den bezala.

2. Horrela, sortutako zerga eta jasandakoa ezarri ahal izango dira likidazio epealdi bakoitzarako, zuzenketa egin ondoren. Inbertsio ondasunen kasuan, zuzenketa inbertsio ondasunen erregistroko liburuan jasoko dira, dagokion ondasunen idazpenaren ondoan, eskuratu beharreko kenkariak erregularizatzeari dagokionez; zuzenketa gisa identifikatu beharko da."

Hamahiru. 71. artikuluko 3. idatz zatiari 5. zenbakia gehitzen zaio; hona testua:

"5. Erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eguneratzea aukeratzeko dutenek, araudi honen 62.6 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz."

Hamalau. Hirugarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona testua:

"Hirugarren xedapen iragankorra. 2017ko ekitaldirako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide erraztua eta araubide berezia aplikatzeko mugak.

2017ko ekitaldirako, 36. artikuluko 1. idatz zatiko f) letran, eta b) letrako a) paragrafoan aipatutako 150.000 euroko neurria, baita 43. artikuluko 2. idatz zatiko b) eta c) letrak ere, 250.000 eurotan finkatuta geratu da"

Hamabost. Laugarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona testua:

"Laugarrena. 2018ko urtarrileko eta otsaileko lehen hamabostaldiko informazioa ematea.

Araudi honetako 69.bis artikuluan ezarritakoa eta zergadunek kasuan kasuko informatika sistemak zuzen ezartzea ahalbidetzea gorabehera, 2018ko urtarrilean eta 2018ko otsailaren lehenengo hamabost egun naturaletan bukatuko diren informazioa hornitzeko epeak 2018ko otsailaren 20ra arte luzatu direla ulertuko da."

Bigarrena. Aldatzea urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena.

Aldaketa hauek egiten dira Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituenen:

Bat. 12. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Gainera, alta aitorten honek honetarako balioko du:

- a) Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu
- b) Jarduera ekonomikoei ekin zaiela jakinarazi
- c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide orokorrean edo araubide berezi batean dagoen adierazi
- d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoaren modalitate erraztua hautatu edo balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egin.
- e) Jarduerari ekin zaiola adierazi, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu direlako jarduera egiteko asmoarekin, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 111. artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako.
- Horren berri ematen denean, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 111. artikuluko bigarren idatz zatian aipatzen duen behin-behineko kenkariaren ehunekoa proposatu behar da.
- f) Zerga oinarria mozkin marjina orokorraren bidez zehaztea hautatu, arte objektu, bilduma objektu eta erabilitako ondasunen araubide berezian, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 111. artikuluko 137. artikuluko bigarren atalean ezartzen duenaren arabera.
- g) Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskatu.
- h) Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 68. artikuluko laugarren idatz zatian aipatzen dituen ondasun emateak zerga horren kargapean ez egotea hautatu.
- i) Aitortzailea erroldan ez badago, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 68. artikuluko hirugarren eta bosgarren idatz zatietan aipatzen dituen ondasun emateak balio erantsiaren gaineko zergaren kargapean daudela adierazi.
- j) Balio erantsiaren gaineko zergan hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzea hautatu (erregela hori urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 103. artikuluko bigarren idatz zatiko 1. zenbakian ezartzen da).
- k) Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroan sartzeko eskatu.
- l) Enpresen elkartzeen eta aldi baterako batasunen erregistro berezian sartuta dagoela adierazi.
- m) Sozietateen gaineko zergaren zatikako ordainketa hautatu, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 130. artikuluko 6. idatz zatian ezartzen duen modalitatearen arabera.
- n) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren ziozko atxikipenen eta konturako sarrerren autolikidazioen likidazioaldia jakinarazi, onartutako azken aurrekontuaren zenbatekoa aintzat hartuta, atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituen herri administrazioa bada, Gizarte Segurantza barne.
- ñ) Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan ezartzen duen zerga araubide berezia hautatu.

o) Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzeko eta zerga taldearen osaerari buruzko erabakien berri eman, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 88. artikuluko 6. idatz zatian xedatzen duenarekin bat etorritz.

p) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluan ezartzen duen araubide berezietako bat aplikatzeko dela jakinarazi edo aplikatzeko eskatu.

q) Balio erantsiaren gaineko zergan entitateen taldeen araubide bereziari buruzko datuak jakinarazi, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren araudia onartzen duenak, 61.bis artikuluan ezartzen duena dela bide.

r) Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateetako partaidetza ehunekoa edo partaide kopurua jakinarazi (honetatik salbu daude jabetza horizontalaren araubidean eraturako jabeen erkidegoak), eta partaidetza nolakoa den argitu.

s) Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez eguneratzea hautatu, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren araudia onartzen duenak, 62.6 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz.

t) Hirugarrenek edo eragiketen hartzaileek faktura emateko betebeharra betetzeko aukera jakinarazi, Fakturazioko betebeharren Araudia onartu zuen 18/2013 Foru Dekretuko 5.1 artikuluen inguruabarretan, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudiko 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan.

u) Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 84. artikuluko Bat.2 g) idatz zatian aipatzen dituen ondasunen enpresaburu edo profesional saltzaile izaera jakinarazi.

v) Establezimendu iraunkorretarako aurreikusitako araubide orokorra aplikatzea aukeratzea, ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 18. artikuluko 5. idatz zatiko b) letran ezartzen duenaren arabera, Espainiako estatuko jarduna eraikuntza, instalazio edo muntaketa obratan datzan establezimendu iraunkorretarako, eta obra horien iraupena sei hiletik gorakoa denean, edo aldi baterako edo denboraldiko ustiapen ekonomikoak, edo baliabide naturalak esploratzeko jarduerak direnean.

w) Zergen arloko arautegian ezarritako gainerako gertaerak eta inguruabarrak edo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituenak jakinarazi."

Bi. 13. artikuluko 2. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

"2. Aitorpen honek, zehazki, honetarako balioko du:

a) Pertsona juridikoek eta gainerako erakundeek, eta Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarreko pertsona fisikoek, zerga egoitzaren, sozietatearen egoitzaren eta egoitzaren aldaketaren berri eman.

b) Foru dekretu honetako 10 - 12 bitarteko artikuluetan aipatutako datuetan eta zerga inguruabarretan gertatzen diren aldaketak jakinarazi.

c) Zerga oinarria mozkin marjina orokorraren bidez zehaztea hautatu, arte objektu, bilduma objektu eta erabilitako ondasunen araubide berezian, aurrean aipatutako Araugintzako Foru Dekretuak 137. artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen duenaren arabera.

d) Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskatu, alta aitorpena aurkeztutakoan erregistro horretan egon beharra dakarten inguruabarretako bat gertatuko bada (foru dekretu honetako 4. artikuluan ezarri dira).

Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasibo batek zerga horren kargapeko jarduerak egiteari uzten badio, aldaketa aitorpena aurkeztu behar du erregistro horretan baja emateko

eskatzeko. Gauza bera egin behar dute aurreko 12 hiletan Batasunaren barruan xede herrialdean kargatutako ondasun ematerik, zerbitzurik ez ondasun edo zerbitzu eskuraketarik egin ez duten subjektu pasiboek.

Enpresa edo lanbide jardueraren bat egiten ez duten pertsona juridikoek ere aitorten hau aurkeztu behar dute Batasunaren barruko eragileen erregistroko egoera aldatzeko, Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun eskuraketak, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 14. artikuluan ezartzen duenaren arabera, kargapean ez badaude.

h) Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 68. artikuluko laugarren idatz zatian aipatzen dituen ondasun emateak zerga horren kargapean ez egotea hautatu.

f) Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 68. artikuluko hirugarren eta bosgarren idatz zatietan aipatzen dituen emateak zerga horren kargapean daudela jakinarazi.

g) Aukerak ezeztatu edo eskaerak aldatu, idatz zati honetako c), d), e), q) eta r) letrek eta foru dekretu honetako 12. artikuluko 3. idatz zatiko f), h), s) eta t) letrek aipatzen dituztenak, baita idatz zati honetako f) paragrafoak eta Foru Dekretuko 12. artikuluko 3. idatz zatiko i) eta u) paragrafoek aipatzen dituzten egoerako aldaketak jakinarazi ere.

h) Balio erantsiaren gaineko zergan hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzea hautatu, kasu hauetan:

1. Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartzen duenak, 28. artikuluko 1. idatz zatiko 1. zenbakiko bigarren paragrafoko a) letran ezartzen duen kasua.

2. Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartzen duenak, 28. artikuluko 1. idatz zatiko 1. zenbakiko bigarren paragrafoko b) letran ezartzen duen kasua, baldin eta Zergadunen Errolda Bakarreko altaren aitortena aurkeztu denarako erregela hori aplikatzea hautatu ez bada. Halaber, alta aitortpenaren bitartez hainbanaketa bereziaren erregelaren hautapena ezezta daiteke (erregela hori apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartzen duenak, 28. artikuluko 1. idatz zatiko 1. zenbakiko hirugarren paragrafoan aipatzen du).

i) Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko eskatu.

j) Balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioaldiaren aldaketa jakinarazi, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren ziozko atxikipenen eta konturako sarreraren aitortpenen ondorioetarako, kasuan kasukoa eragiketa bolumenaren (araudi egokian xedatutakoaren arabera kalkulatuta) edo onartutako azken aurrekontuaren zenbatekoaren arabera, atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituen herri administrazioa bada, Gizarte Segurantzza barne.

k) Sozietateen gaineko zergaren zatikako ordainketa hautatu edo hautapen horri uko egin, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 130. artikuluko 6. idatz zatian ezartzen duen modalitatearen arabera.

l) Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan ezartzen duen zerga araubide berezia hautatu edo araubide horri uko egin.

m) Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzeko eta zerga taldearen osaerari buruzko erabakien berri eman, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 88. artikuluko 6. idatz zatian xedatzen duenarekin bat etorritz.

p) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluan ezartzen duen araubide berezietako bat aplikatuko dela jakinarazi edo aplikatzeko eskatu, edo uko egiten zaiola jakinarazi.

ñ) Enpresa eta lanbide jarduera guztiei utzi zaiela jakinarazi (ez enpresaburu ez profesional ez direnek atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu beharreko etekinak ordaintzeari utziko diotela jakinarazi).

o) Balio erantsiaren gaineko zergaren entitateen taldeen araubide bereziari buruzko datuak jakinarazi, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren araudia onartzen duenak, 61.bis artikuluan ezartzen duena dela bide.

p) Lehendik ere enpresa edo lanbide jarduerak egiteagatik enpresaburu edo profesional izanik, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako beste arlo bateko enpresa edo lanbide jarduera bati ekiten diotenen jarduera hasi dela jakinarazi.

Horren berri ematen denean, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 111. artikuluko bigarren idatz zatian aipatzen duen behin-behineko kenkariaren ehunekoa proposatu behar da.

q) Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eguneratzea aukeratu, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudiko 62.6 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.

r) Hirugarrenek edo eragiketen hartzaileek faktura emateko betebeharra betetzeko aukera jakinarazi, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak, Fakturazioko betebeharren Araudia onartzen duenak, 5.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz, Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudiak 62.6 artikulua aipatzen dituen pertsona eta entitateen kasuan.

s) Zergen arloko arautegian ezarritako gainerako gertaerak eta inguruabarrak edo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituenak jakinarazi."

Hirugarrena. Aldatzea martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko informazioa eman beharra arautzen duena.

2. artikuluko 1. idatz zatiari f) letra gehitzen zaio; hona testua:

"f) Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudiak, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duenak, 62.6 artikuluan aipatzen dituen zergapekoak."

Laugarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 10eko 12/2009 Foru Dekretua, erregistro liburuetakoa eragiketei buruzko informazioa eman beharra ezarri eta Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudia onartzen duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretua aldatzen duena.

1. artikulua edukirik gabe uzten da

Bosgarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren 18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, Fakturazioko betebeharren Araudia onartzen duena.

Bat. Honela idatzita geratzen da 5. artikuluko 1. idatz zatia:

"1. Foru dekretu honetako 2. artikuluan aipatutako betebeharra eragiketaren hartzaileak edo hirugarren batek bete dezake. Nolanahi ere, kasu hauetan titulu honetan ezarritako betebeharrak guztien erantzulea subjektu pasiboa izango da, hots, faktura egin behar duen enpresaburua edo profesionala.

Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudiko 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, hirugarrenek edo eragiketen hartzaileek faktura emateko betebeharra betetzeko aukera hautatu badute, horren berri ematen duen zentsu aitortpena aurkeztu beharko dute; horrez gain, noiztik baliatu den eta, hala badagokio, horri uko egin izana eta ondorio data ere agerrarazi beharko dira."

Bi. Honela idatzita geratzen da 18. artikulua:

“18. artikulua. Fakturak bidaltzeko epealdia.

17. artikuluan aipatu bezala, fakturak igortzeko betebeharra ematen den unean bertan bete beharko da, edo bestela, hartzailea enpresaburu edo profesional bat denean eta horrela jokatzeko duenean, aipatutako eragiketari dagokion zergaren sortzapena sortu eta hurrengo hilabeteke 16. eguna baino lehen, edo, kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen duten eragiketen kasuan, eragiketa egin den hilaren hurrengo hileko 16. eguna baino lehen.”

Hiru. Bigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

“Bigarrena. Energia elektrikoa emateko zenbait entregaren fakturazioa.

1. Energia elektrikoa ekoizteko merkatuari lotutako energia elektrikoaren trukeak, Sektore elektrikoaren 24/2013 Legeko 28. eta 30. artikuluetan aipatzen direnak, bai eta abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretuak, energia elektrikoa sortzeko merkaturia antolatu eta arautzen duenak, 2. artikuluan aipatzen dituenak ere, sistema eragileak dokumentatu beharko ditu, Sektore elektrikoaren Legean eta hori geratzen duen araudian ezarritakoaren arabera eman zaizkion funtzioekin bat etorritik.

2. Energia elektrikoaren entregak aipatutako eragileak emandako fakturen bitartez dokumentatu dira, energia hornitu duten entitateen izen eta kontura; fakturretan araudi honen 6.1 artikuluan aipatutako datu guztiak agertu beharko dira, eta eragiketaren hartzailea identifikatzeko datuak sistemako eragilea identifikatzekoak izango dira; azken horrek egindako jatorrizko faktura gorde beharko du, eta hornitzaileari kopia bat igorri beharko dio.

3. Sistema eragileak faktura bat emango du eskuratzailerako bakoitzari egindako entregengatik; horietan araudi honen 6.1 artikuluan aipatutako datu guztiak agertu beharko dira, eta emaila identifikatzeko datuak sistema eragilea identifikatzekoak izango dira; azken horrek faktura horien kopia gorde beharko ditu, eta jatorrizkoa horien hartzaileari igorri beharko dio.

4. Xedapen gehigarri honetako aurreko ataletan aipatutako agiriak sistemako eragileak gorde behar baditu, orduan faktura gisa hartuko dira araudi honetan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Zerga Administrazioaren eskura egongo dira preskripzio aldira beharrezko egiaztapen lanak egin ahal izateko, kasuan kasuko fakturretan islatutako energia elektrikoaren entreegi dagokienez.

5. Sistema eragileak hirugarren pertsonetik eragiketen urteko aitortzean jaso beharko ditu energia elektrikoaren hornitzaileak eta eskuratzailerak egindako eragiketak, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharra arautzen duenak, aurreikusitako inguruabarretan, eragiketa horiek dokumentatu badira xedapen gehigarri honen aurreko ataletan adierazitakoaren arabera; hornitzaile eta eskuratzailerako bakoitzari dagokionez, aitortzearen aldira egindako eragiketen zenbateko osoa agerrarazi beharko da, eta hornitzaile bakoitzari leporatutako energia entregak erosketa gisa jasoko dira, eta salmenta gisa, berriz, eskuratzailerako bakoitzaren energia eskuraketak.

6. Nolanahi ere, eta xedapen erantsi honetan aipatutako eragiketei dagokienez, sistema eragileak laguntza eman behar dio Zerga Administrazioari; hain zuzen ere, eragiketa horien zerga tratamendu egokirako garrantzia duten datu, txosten edo agiri guztiak eman behar dizkio.

Fakturaturako aldiaren kobrantza eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak energia elektrikoa behin emateari lotuko zaizkio, aldi horrengatik.

7. Sistema eragileak hirugarren bat gaitu ahalko du entitate hornitzaileen eta eskuratzaileraren artean kontraparte zentral gisa aritzeko; hala, ondorio guztietarako ulertuko da energia elektrikoaren entregak entitate hornitzaileak eman dizkiola aipatutako hirugarrenari, eta, aldi berean, entitate eskuratzailerak jasotzen dituztela. Kasu horretan, eragiketaren hartzailearen eta jaulkitzailearen identifikazio datuen ordean, kontraparte zentral gisa gaitu den hirugarren pertsonaren datuak jarri behar dira, eta hirugarren horrek bete beharko ditu xedapen gehigarri honen kontraparte zentral gisa jarduteko gaitu duen operadoreari ezartzen dizkion fakturazio betebeharrak.”

Seigarrena. Aldatzea abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena.

III. kapitulu berria txertatu da abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuan, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duenean; hona testua:

“III. KAPITULUA

BESTELAKO INFORMAZIO BETEBEHARRAK

24. artikulua. Hiri finkak alokatzeari buruz informatzeko betebeharra

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak urteko informazio aitorten bat aurkeztu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Alokairu Kontratuen Erregistroan jasotako datuei eta fidantza jartzeari dagokienez, martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa.

Zehazki, aitorpenean, besteak beste, alokatutako ondasun higiezinaren identifikazio datuak agertu beharko dira, jarritako fidantza datuekin, errentari eta errentatzaileen zerrenda izendunarekin batera, baita kasuan kasuko eredu onartzeko foru aginduak zehaztutako bestelako informazioarekin ere.”

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ezohiko baja hileko itzulketen erregistroan

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketa erregistroan jasotako subjektu pasiboek bertan borondatezko baja eskatu ahaliko dute.

Zergaren foru arauaren IX. tituluko IX. kapituluan araututako entitateen taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen kasuan, baja eskaera entitate menderatzaileak aurkeztuko du erregistro horretan, eta araubide berezia aplikagarri zaien taldeko entitate guztiei buruzkoa izan beharko da.

2. 2017ko ekitaldian hileko itzulketa erregistroan alta eman zaien subjektu pasiboek ezohiko baja eskatu ahal izango dute.

3. Ohiko zein ezohiko bajaren eskaerak 2017ko azaroan egin beharko dira, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, bosgarren oinarriko hirugarren idatz zatian jasotako aldaketa eta seigarren oinarrian sartutakoa salbu; horien kasuan, adierazi bezala indarrean sartzean izango dituzte ondorioak.

Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuko 12. artikuluko 3. idatz zatiko s) eta t) letretan eta 13. artikuluko 2. idatz zatiko q) eta r) letretan ezartzen diren aukera eta komunikazioak, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izan behar badituzte, orduan 2017ko abenduan egin beharko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 5a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ